

## **IRREGULARTASUNAK JAKINARAZTEA GAITUTAKO POSTA ELEKTRONIKOAREN BIDEZ**

Herritarrak, eguneroko eta laneko jardueren testuinguruan, maiz lehenak izaten dira interes publikoari eragindako kalteen berri izaten; kalteok sor daitezke bai NPETik datozen laguntzak lortzeko baldintzak faltsutu direlako, bai baliabide horiek emandakoak ez diren beste helburu batzuetarako erabili direlako. Erakunde ordaintzaileak badaki herritarrek funtsezko zeregina betetzen dutela arau-hauste horiek aurkitu eta prebenitzeko orduan, eta badaki, halaber, irregulartasunak salatzekeo prozesuaren zati gero eta garrantzitsuagoa direla. Horrela, arau-hausteei buruzko informazioa duten eta salatu nahi duten pertsona gisa definitzen ditu alerta-emaileak.

Posta elektronikoa honen helburua da erakunde ordaintzailearen eta herritarren arteko lankidetzaren sustatzea, baliabide publikoen erabilera zuzena zaintzeko; hartara, informazio egokia azkar iritsiko zaie arazoaren iturritik hurbilen daudenei eta arazoak ikertzeko eta konpontzeko aukera gehien dutenei.

### **Zertan datza?**

Posta elektronikoa hori herritarrek modu elektronikoan parte hartzeko kanala seguru bat da, eta haren helburua da bitarteko arin eta eraginkor bat eskaintzea, NPBTik datozen laguntzak behar bezala erabiltzearen aurkako edozein ekintza edo ez-egite erakunde ordaintzaileari jakinarazteko.

Kanal horrek babesa ematen dio ohartarazleari, haren eskubideak eta interesak kaltetu ez daitezken. Horretarako, erakunde ordaintzaileak konpromisoa hartzen du irregulartasunak jakinarazten dizkieten pertsonen identitatea konfidentziasunez gordetzeko eta interesdunaren baimen informatuarekin edo epailearen aginduz soilik jakinarazteko. Alerta-emaileak babestu egingo dira errepresalia ororen aurka, errepresalia hori zuzeneko edo zeharkakoa izan, bere enpresaburuak, bezeroek edo lankideek egin, elikatu edo onartua izan. Era berean, hori kudeatzeaz arduratzen den Erakunde Ordaintzailearen zerbitzuak berme egokiak eskaintzen ditu independentziari, konfidentziasunari, datuen babesari eta sekretuari dagokienez.

Halaber, komunikazioen konfidentziasuna bermatzeaz gain, tresna horrek anonimotasuna gordetzeko aukera ematen du, ohartarazlea identifikatzea ez baita ezinbesteko baldintza komunikazioa egiteko.



## **Prozedura**

Komunikazioa posta elektronikoaren bidez aurkeztu ondoren, ohartarazleak bidalketaren hartu-agiria jasoko du.

Posta hori kudeatzeaz arduratzen den zerbitzuak, informazioa sinesgarria bada, komunikatutako gertakariak egiaztatuko ditu, dagozkion ikerketa-lanen bitartez. Egiaztatze hori printzipio hauen arabera egingo da: kongruentzia, premia, proportzionaltasuna, bizkortasuna, eraginkortasuna eta prozedura-ekonomia, betiere zuhurtzia handienaren printzipioa errespetatuz.

Izapidetzeaz arduratzen den zerbitzuak komunikazio-kanal horren bitartez izango du harremana alerta-emailearekin, gertakariak ikertzeko eta egiaztatzeko lanak errazte aldera, salbu eta hark beste bide bat adierazten badu edo aurka dagoela adierazten badu. Posta elektronikoaren bidez egindako informazio-eskaerei ez erantzuteak jarduketak artxibatzea ekar dezake.

Inolaz ere ez dira onartuko funtsik ez duten edo nabarmen faltsuak diren komunikazioak.

## **Ohartarazlearen eskubideak:**

- Komunikazio-kanal seguru bat izateko eskubidea, komunikazioen anonimotasuna eta konfidentzialtasuna bermatuko duena.
- Bere intimitatea, pribatutasuna eta anonimotasuna eraginkortasunez babesteko eskubidea; ezin izango da inoiz ere haren nortasunaren berri eman, ez zuzenean, ez zeharka. Eskubide hori izango dute, halaber, komunikatutako egitateak egiaztatzen esku hartzen duten balizko lekukoek.
- Lan-integritatearen babes eraginkorra izateko eskubidea; egindako komunikazioaren ondorioz, ezin izango dute jaso errepresaliarik, diskriminaziorik edo jazarpena edo zeinahi ondorio negatibo dakarren bestelako ondorio profesionalik.
- Jakinarazitako egitateak egiaztatuarazteko eskubidea, baldin eta aurreikusitako errekerimenduei erantzuten badiete.

## **Ohartarazlearen betebeharrak:**

- Jakinarazten duen jokabidea ahalik eta modu zehatzenean deskribatzeko eta komunikatzen duen egoerari buruz eskuragarri dagoen dokumentazio guztia emateko betebeharra, edo frogak lortzeko zantzu objektiboak emateko betebeharra; ez du iritzietan soilik oinarritutako jarduketei ekiterik izango.
- Arrazoiz, jakinarazten duen informazioa ziurra dela uste izateko betebeharra –informazio horrek garrantzi berezia izan behar du NPBren funtsetan–, eta komunikazioak fede txarrez edo eskubide-abusuz ez egiteko betebeharra. Fede onaren printzipioa urratzen duten egitateak jakinarazten dituen pertsonak edo eskubide-abusuz diharduenak erantzukizun zibila, penala eta administratiboa izan dezake.



**Posta elektronikoa tratatzeko ardura duen ERAKUNDE ORDAINTZAILEAREN zerbitzuaren betebeharrak**

- Bere kabuz edo bere unitateko langileen bitartez, dagozkion egiaztatze-lanak egitea.
- Komunikazioak kudeatzea.
- Gertaerak egiaztatzeko gomendioak ematea.
- Propio sortutako datu pertsonalen fitxategiaren kudeaketa operatiboa bere gain hartzea.
- Emandako laguntzen helburuaren aurkako balizko jokabiderik egonez gero, pertsonak erakunde ordaintzaileari konfidentziasunez jakinarazi ahal izateaz arduratzea.
- Laguntzak kudeatzeko gomendioak egitea eta hobekuntzak proposatzea.
- Prestakuntza-jarduerak eta laguntzen helburuaren aurkako jarduerak prebenitzeko-neurriak bultzatzea
- Alerta-emailearen nortasunaren konfidentziasuna babestea salaketa-prozesuan eta hark abiarazitako ikerketetan.

**Oharrak:**

1 *Definizioak:*

- Salaketa konfidentziala: Salaketaren hartzaileak ezagutzen ditu informazioa eman zuen pertsonaren izena eta identitatea, baina ez ditu zabalduko salatzailearen baimenik gabe, legeak hala eskatzen ez badu.
- Salaketa anonimoa: Iturria inork jakin gabe jasotzen den salaketa edo informazioa.

2 *Komunikazioa aurkezten duen pertsona ez da interesdun izango prozeduran.*

3 *Alerta-emailearen babesaren oinarri den araudia: 2019/1937 (EB) Zuzentaraua, 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016/680 (EB) Zuzentaraua, 2018/1725 (EB) Erregelamendua eta 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa (DBLO)*

